

# 1. **BALIO ERANTSIA**

Arraroa da ibilaldi bat egiteko eta kotxe, kamioi edo beste ibilgailu batekin sustoren bat ez izatea. RTVE irrati-telebistaren arabera “ia egunero” daude bizikleten eta kotxeen arteko istripu edo inzidentziak. Kotxeek ez dute 1,5 metroko segurtasun neurria mantentzen eta gainera oso abiadura handian pasatzen dira txirrindularien albotik. Espainian 2022. urtean 21 txirrindularik galdu dute bizitza errepideetan, 2021ean 31 txirrindulari, eta 2016tik 2020ra 345 txirrindulari izan ziren bizitza galdu zutenak. Azken 6 urte hauetan heriotzen kopurua ia 400ekoa da. Arrazoi guzti hauengatik uste dugu txirrindularien egoera errepideetan hobetu behar dela, haien egoera oso ahula delako, eta egoera hauek hobetzeko istripuak murriztea izango litzateke aukerarik egokiena.

Gaur egun, ikusi da pantailadun radarrak gidariak abiadura murrizteko oso metodo eraginkorra direla, %85ekoa. Abiaduraren murrizketa %28koa izan da, zehazki, Mugikortasun Zinegotziak egindako neurketen arabera, trafikoaren abiadura 11,2 kilometro orduko jaitsi da, batez beste, emotikonoak eta abiadura-adierazleak dituzten pantailak jarri ziren puntuetan.

Esan beharra dago, radarrak ez dutela isuna jartzeko balio, bakarrik informatiboak direla, hauen helburua informatiboa eta sensibilizatzailea izango delako.

Eta zergatik dira eraginkorragoak pantailadun radarrak? Ikusi da pantailadun radarrak, ez dituztenak baino eraginkorragoak direla. Argi gorriak edo berdeak gidariaren atentzioa hartzen du, baita egunero pasatzen direnena ere.

Hori guztia ikusita, gure proposamena txirrindulari bakoitzak ezaugarri horietako informazio-radar bat eramatea da. Aulkiaren azpian, lohi-babesean edo

parrillan pantaila bat jarriko da, atzetik datorren autoari argi-seinaleak egingo dizkiona (1. abiadura eta 2. abiadura egokian badator aurpegi irribarretsu berdea edo abiadura azkarrean badator aurpegi triste gorria), abiadura jaitsi dadin. Amorrutik hori radar txiki bati konektatuta dago. Radar hori aulkiaren azpian zeren txikia denez edonon jar daiteke.

Gure balioa kualitatiboa izango da; izan ere, materialen kalitatean zentratzea erabaki dugu, urarekiko erresistentea izan daitezen, kolpeak izan daitezen, erraz aska ez daitezen, eta, gainera, beste enpresa batekin lankidetzan arituko gara, gure gastuak murrizteko eta mundu guztiarentzat ekonomikoki eskuragarria izan dadin. 72 orduko autonomia izango du, eta gailuarekin datorren kargagailua ordu batean baino gutxiagotan kargatu ahal izango da.